

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1123

88/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritza gerentziarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Urgentzietako gainbegirale lanpostu bat izendapen aske bidez betetzekoa.

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Urgentzietako gainbegirale lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egitea, lege-xedapen hauei jarraikiz: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komuna, Osakidetza-ren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua. Oinarri hauen arabera beteko da:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartzeko, baldintza hauek betetzen direla egiaztatzen behar da:

- a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta plaza jabetzan edukitzea B1 talde profesionalean.
- b) B1 taldeari dagokion titulazioa edukitzea.
- c) Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia, edukitzea B1 lanbide taldean.
- d) Hizkuntza-eskakizuna: 2.a (derrigortasun-datarik gabe).
- e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako eskakizunak betetzea.

2.– Aintzat hartuko diren merituenak.

- Erizaintzako unitateen kudeaketako prestakuntza edo lan-esperientzia.
- Antolaketarako zein talde-Zuzendaritzarako gaitasuna.
- Antolatze eta taldeak kudeatzeko esperientzia izatea.
- Informatika ezagutzak erabiltzaile mailan: Excel eta Word.
- Urgentzien Unitatearen memoria-proiektua.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein meritua aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Mendarozabal auzoa z.g., 20850 Mendaro). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Mendarozabal auzoa z.g., 20850 Mendaro), beren datu pertsonalekin eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Baloratu beharreko meritu guztien fotokopia konpultsatua.
- e) Urgentzien Unitatearen memoria-proiektua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskabidean.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua haietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAr argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merituak, ez eta eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen ebazpen baten bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2020ko otsailaren 10a.

Debabarreneko ESiko zuzendari gerentea,
MARBELLA GARCÍA URBANEJA.